

(Berdintasuna, Giza Eskubideak eta bakoitzaren identitatea errespetatzea da helburu)



Maiatzak 17: LGTB fobiaren aurkako Nazioarteko Eguna da.

Gure ikastetxeko ikasle guztiak gai honi buruzko hausnarketa eta jakintza jasoko dute maiatzean zehar:

Aniztasunaren alde	ZER	NON	NOIZ
DBH 1-2	Gaia, bideoetan oinarrituta landuko da	Klase orduetan: bakoitzak bere gelan	Maiatzeko bi asteetan zehar
DBH 3	Gaia antzerki emanaldi batean oinarrituta landuko da	Klase orduetan: herriko kultur etxean	Maiatzaren 14an
DBH 4	Trans eta aniztasunaren gaiaren lanketa tailer baten bidez.	Klase orduetan: ikastetxeko liburutegian	Maiatzaren 9an
Batxilergoa	Hausnarketa pertsonala.	Herriko kultur etxean	Maiatzaren 17ko ikuskizunera eta ekainaren 7ko dokumentalaren proiektziora konbidatuta daude.

Gure ikastetxeak ikasleei heziketa integrala ematea du helburu. Beti ere, giza eskubideetan oinarrituta, gatazken errespetuzko kudeaketa eta aniztasunean begirada zuzena jarritz, asertibitatea eta enpatia landuz pertsona osoa, jatorra eta jokabide zintzoa duena heziz.

OHARRA- IRAKASLE-GURASOENTZAKO GONBIDAPENA :

Ikastetxea, ikasleak, gurasoak eta irakasleak osatzen dugunez, bihotzez eskatzen dizuegu ikastetxeak udalarekin batera antolatu dituen bi ekintzetan parte hartzea, hau da, ikuskizunetara joatea.

Eguna	Ekintza	Gaia	Ordua	Tokia
Maiatzak 17	“Mahaitasunez, mesame” Ikuskizuna	Aniztasuna	19:00	Lasarteko kultur etxean
Ekainak 7	“Trans-formatzen” dokumentala	Bizitako esperientzien kontakizunak	19:00	Lasarteko kultur etxean

Animatu zaitetze bertaratzea, kalitate eta maitasun handiz egindako lanak dira. Gozatzeko eta ondoren zuen seme alabekin hausnartzeko aukera bikaina baita.

Animatu zaitetze!!!!